



ILEAK KENTZEKO 4 ARGIZARI-BANDA, 4 ARGIZARI ETA 4 KREMA AZTERTU DITUGU

Argizari-bandak dira merkeenak etxean ileak kentzeko

BELAUNETIK BEHERAKO ILEAK ARGIZARIZ KENTZEA GARESTIAGOA DA ARGIZARI-BANDEKIN EDO KREMEKIN EGITEA BAINO (BI HALAKO BALIO DU, BATEZ BESTE). ILEAK BEHIN BETIKO KENTZEA, BERRIZ, 600 EURO KOSTATZEN DA, GUTXIENEZ, ETA DIRU HORREKIN, 5 URTEZ KENDU AHAL IZANGO GENITUZKE ILEAK ARGIZARIZ ESTETIKA-ZENTRO BATEAN

Historiaurreko gizonek burdinazko eta kobrezko labanak erabiltzen zituzten bizarra egiteko, antzinako Egiptoko emakumeek azukrez egindako argizariak erabiltzen zituzten ileak kentzeko, eta greziarrek, berriz, argizaria eta apar-harria erabiliz, buruko ileak erretzen zituzten. Gizateria, beraz, beti saiatu da ilea desagerrarazteko metodoak bilatzen. Denborarekin, medikuntza eta kosmetika industriak aurrerapen handiak egin ditu, eta ilea luzaro samarrean desagerrarazteko metodoak sortu ditu (fotodepilazioa, depilazio elektrikoa, laser bidezkoa...); etxean

erabiltzeko argizari hotz eta erdi-hotzak ere asmatu dituzte, ileak erraz-erraz kendu ahal izateko. Tamalez, ileak errotik ateratzean sentitzen den mina desagerrarazterik ez dute lortu oraindik.

CONSUMER EROSKI-k ileak kentzeko hiru sistema aztertu ditu, Veet, Taky, Byly eta Daen etxeetakoak: argizari-bandak, argizaria eta kremak. Horrez gain, hiru apaindegitan galdetu dugu zenbat balio duen ileak argizariz kentzeak, eta hogeita hamar estetika- eta mediku-zentrotan izan gara, jakiteko zenbat kostatzen den fotodepilazio saioa bat egitea (argi pultsatuarekin) eta laser bidez ileak kentzea. Kontsumitzaileek antzeko iritzia eman dute argizari-banden eta argizariaren inguruan, nahiz eta prezioz, bandak merkeagoak izan (bandekin, batez beste, 1,75 euro kostatzen da belaunetik beherako ileak kentzea, eta argizariarekin, 3,60 euro). Kremetan eta argizarietan, Byly etxeetakoak gailendu dira kalitate-prezioetan, eta argizari-bandetan, Daen etxeetakoak. Luzerako depilazioa egiteak 600 euro baino gehiago balio du fotodepilazioa erabiliz gero, eta 1.000 euro inguru laser bidez eginez gero; aukera onak dira, hala ere, apaindegietara maiz joaten direnentzat ileak argizariz kentzera. Bost urte baino ez lituzkete beharko inbertsioa amortizatzen. >

MARKA	ARGIZARI BANDAK				ARGIZARIAK				Byly	Daen	Taky	Veet
	Daen	Byly	Taky	Veet	Byly	Daen	Veet	Taky				
Salgaiaren izena	Argizari-bandak	Argizari-bandak	Argizari-bandak	Argizari-bandak	Argizaria	Argizaria	Argizaria	Argizaria	Ileak kentzeko kremak	Ileak kentzeko kremak	Ileak kentzeko kremak	Ileak kentzeko kremak
Etiketaren aipamenak	Musketa arrosa	Menda eta Te Berdea	Isla-anizkoitzak	E bitamina Almendra olioia	Roll-on Txokolate erara	Roll-on Esne naturalaren eratorriekin	Te Berdea	Fruitu gorriak	Tahitiko Monoï erara	Esne naturalaren eratorriekin	Lis-lore zuria-aren estraktuekin	Aloe Vera eta E Bitamina
Edukia	8 banda bikoitz 2 eskuzapitxo depilazio osterako 1 eskuzapitxo geldotzailea	6 banda bikoitz 2 eskuzapitxo depilazio osterako	8 banda bikoitz 2 eskuzapitxo depilazio osterako 2 eskuzapi depilazio-aurrerako	6 banda bikoitz + 2 doan 2 eskuzapitxo depilazio osterako + 1 doan	125 ml argizari Roll-on zabalgailua 12 oihal banda	140 ml argizari Roll-on zabalgailua 10 oihal banda 1 eskuzapitxo geldotzailea	250 ml argizari Espatula 12 oihal banda	400 g argizari Espatula 2 eskuzapitxo depilazio osterako	100 ml krema Espatula	200 ml krema Espatula	150 ml krema Espatula 2 eskuzapitxo depilazio osterako	100 ml krema + 25 ml doan Espatula
Prezioa, bandako ⁽¹⁾ (euro/bi banda)	0,27	0,41	0,43	0,64	-	-	-	-	-	-	-	-
Prezioa, kiloko (euro/kilo)	-	-	-	-	28,81	24,66	21,05	21,33	28,17	18,64	32,31	44,14
Prezioa, saioko ⁽²⁾ (euro)	1,00	1,44	1,68	2,88	2,02	1,63	4,84	5,89	1,86	2,83	3,75	4,68
Etiketa	Egoki emana	Egoki emana	Egoki emana	Egoki emana	Egoki emana	Egoki emana	Egoki emana	Egoki emana	Egoki emana	Egoki emana	Egoki emana	Egoki emana
ANALISI FISIKO-KIMIKOA												
Osagai nagusia	Erretxinaren eratorriak	Polimero kimikoak	Polimero kimikoak	Erretxinaren eratorriak	Azukreak	Azukreak	Azukreak	Erretxinaren eratorriak	Tioglikolatoak	Tioglikolatoak	Tioglikolatoak	Tioglikolatoak
Argizari luzera eta zabalera (cm)	11,5 x 6,6	14,8 x 5,3	10,8 x 6,1	13,5 x 5,5	-	-	-	-	-	-	-	-
Argizari gainazala (cm ²)	75,9	78,4	65,9	74,2	-	-	-	-	-	-	-	-
Argizari gramoa (g/m ²)	209,8	235,9	227,58	221,8	-	-	-	-	-	-	-	-
pH	-	-	-	-	3,1	2,9	3,0	Ez du esaten	11,5	12,3	12,6	12,5
Biskositatea ⁽³⁾ (zentipoiseak)	-	-	-	-	21092	5940	18537	158000	17785	19389	29058	19739
Estarktu lehorra (%)	-	-	-	-	92,4	90,1	90,0	97,8	28,6	23,6	24,9	28,5
Tioglikolatoa (%)	-	-	-	-	-	-	-	-	4,2	3,8	3,1	3,1
Guritze maila (°C)	-	-	-	-	Produktua berez da guria	Produktua berez da guria	Produktua berez da guria	55	-	-	-	-
Kalitatea, oro har	Ona	Oso ona	Ona	Oso ona	Oso ona	Oso ona	Oso ona	Oso ona	Bikaina	Ona	Oso ona	Oso ona
Erabilera proba (1etik 9ra)	6,0	6,0	6,1	6,4	6,3	7,1	6,5	6,4	5,2	6,2	6,8	7,2

(1) **Prezioa, bandako.** Bi bandari dagokion prezioa ageri da, binaka etortzen baitira. Zorroan datozen gainerako gaiak (eskuzapitxoak)doan ematen dituztela pentsatu behar da. Veet etxeko zorroan, bi banda doan oparitzen dituztela pentsatu behar da. (2) **Prezioa, saioko.** Bi zangoetan belauetik beherako ileak kentzea zenbat kostatzen den kalkulatu dugu, kontuan hartuz produktu bakoitzetik zenbat behar izan duten kontsumitzaileek erabilera proban. (3) **Biskositatea.** Argizarietan, 70 °C-tan zer biskositate eman duten jarri dugu. Kremetan, tenperatura normalean neurtu dugu, girokoan.

BANDAK: AUKERARIK MERKEENA

Argizari hotzak dira bandak, eta ez da horiek berotzen ibili beharrik. Bi xafla malguren artean egoten da argizaria; xaflak bereizi, larruazalean itsatsi eta horiei tira eginez kentzen dira ileak. Etxean erabiltzeko sistemen artean, hauxe da merkeena: batez beste, 1,75 euro balio du belauetik beherako ileak argizari hotzezko bandekin kentzeak, eta Daen etxeko bandak erabiliz gero, euro batekin egin liteke. Etxe guztiek bi eskuzapitxo ekarri dituzte ileak kendu ondorenerako (Veet etxekoak beste bat gehiago eman du opari). Daen etxekoak, gainera, eskuzapi geldotzailea eduki du, eta Taky-k, berriz, depilazio-aurrerako bi.

Byly etxekoak eduki du argizari zerrendarik luzeena (14,8 zentimetro, batez beste bakoak baino bi gehiago), eta zabalena, berriz, Daen etxekoak (6,6 zentimetro eta batez beste bakoak 5,9 zentimetro). Argizari-gainazalik handiena ere Byly etxekoak eduki du (78,4 zentimetro koadro), baita argizari-gramo gehien ere (235,9 gramo/cm²); hau da, Byly-k eman du argizari kopuru handiena larruazal eremu bakoitzeko, eta, beraz, eraginkorra izan da. Erabilera proban ez da antzeman alde esanguratsurik; Veet etxekoak 6,4 puntu lortu ditu, eta 6 puntu Daen eta Byly etxekoek. Kalitate-prezioetan, Daen izan da onena: merkeena da, zabalena, argizari-gainazal gehien eduki duenetakoa, eta eskuzapitxo geldotzaileak dituen bakarra.

ARGIZARIAK: HOBE ARRABOLAREKIN

Ileak kentzeko argizariak produktu kimikoak dira, erle-argizariaren antzekoak (kolofonia edo azukrea eduki ohi dute). Berotan ematen dira larruazalean, poroak irekitzen dituzte, eta tiraldi bat kemenez eginda kentzen dituzte ileak. 30 emakumerekin egin dugun proban, argizari bidezko sistema gertatu da garestiena etxean erabiltzeko artean: batez beste, 3,60 euro kostatzen da belauetik beherako ileak kentzea. Etxetik etxera, hala ere, alde nabarmenak ikusi ditugu (Daen etxekoarekin 1,63 euroan iriteten da, eta Taky etxekoarekin, 5,89 euro). Apaindegi batean, berriz, 14 euro baino zertxobait gehiago kobratzen dute ileak argizariz kentzea, etxean egitea halako hiru, beraz.

Lau etxeetako produktuek ongi emanak eduki dituzte etiketak, baina CONSUMER EROSKI-k arrisku bat ikusi die Byly eta Taky etxekoei: txokolate usaina du Byly-k eta fruitu gorrien lurrina Taky-k, eta horrek oso erakargarri egiten ditu haurrentzat. Daen etxekoak etiketan esaten du eskuzapi txikiak dakartzala, ilea ez dadin hain azkar atara, baina guk erabili ditugun batzuek ez dute eduki.

Taky argizaria zuzenean tira eginez kentzen da larruazaletik, eta beste hirurek oihal banda luzeak ekarri dituzte, argizaria zabaldu ondoren gainean itsatsi eta tira egiteko.

Daen eta Byly etxekoek arraboltxo bat edo argizaria zabalteko roll-on sistema bat eduki dute, eta hori oso egokia iruditu zaie kontsumitzaileei.

Byly, Daen eta Veet etxeetako argizariak epelak dira; sakarrosa eta glukosa dituzte osagai nagusi, eta tenperatura txikietan urtzen dira. Beraz, larruazaletik kendu eta oso erraz jar daitezke berriz erabiltzeko moduan. Taky etxekoak, aldiz, erretxina-oinarri bat dauka, eta ez da guritzen 55 °C-tara iritsi arte. Haren konposatuak, gainera, ez dira uretan disolbatzen, eta zailagoa gerta daiteke hondarrak eta orbanak garbitzea. Argizaria 70 °C-tan berotu dugunean (gutxieneko tenperatura hori erabili dugu proba hau egiteko), Taky etxekoa biskosoagoa izan da azukre-oinarriak dituzten argizariak baino. Horrez gain, oinarrian urik ez duenez, ezin da jakin zer pH daukan. Gainerako argizari guztiak azidoagoak dira larruazal osasuntsuak eduki ohi duen pH-arekin konparatuaz gero (5,5). Azkenik, Taky etxekoari antzeman diogu estraktu lehor gehien (osagai aktibo gehien), nahiz eta guztiak ere oso goitik ibili diren (% 90 baino gehiago eduki dute).

Erabilera proban ez da izan alde handirik batzuen eta beste artean; Taky-k lortu du emaitzarik onena (7,1 puntu 9tik), baina kalitate-prezioak aintzat hartuta, Byly gailendu da. Merkeena izan da, erraz zabalteko da, eta emaitza ona lortu du erabilera proban (6,3 puntu 9tik).

BEHIN BETIKO DEPILAZIOA AMORTIZATU

Ileak bistatik kendu nahi dituenak, behin betiko, depilazio elektrikoaren bidez egin dezakete, edo teknologia aurreratuagoa eta min gutxiago ematen duena nahi badu, laser bidez ken ditzakete ileak edo argi pulsatuaren bidez bestela (argi polikromatiko bat da, laserraren antzekoa, eta emaitza ere berdintsua lortzen du). Metodo garestiak dira: estetika-zentro batean, 600 euro inguru kostatzen da fotodepilazioa egitea (757 euro mediku-zentro batera joanez gero); laser bidez ileak kentzea, berriz, 900 euro izaten da estetika-zentro batean, eta 100 gehiago mediku-zentro batean. Tarifa horiek aintzat hartuta, ileak etxean kentzen dituen pertsona batek 41 urteko beharko lituzke inber-tsioa amortizatzekeo bandak erabiltzen baditu, 20 urte argizariak erabiltzen baditu eta 11 kremekin egiten badu etxean depilazioa. Estetika-zentro batera joateko ohitura duenak, berriz, 5 urtean egingo luke.

KREMAK: DEPILAZIO KIMIKOA

Agerian geratzen den ilea kentzen dute krema hauek. Azido tioglikolicoa eduki ohi dute, eta 12 inguruko pHa edo handiagoa, horren eraginez, ilea oso azkar hidratazen da, eta eten egiten da. Bizarra egiteko makina edo labanatoa erabiltzea baino egokiagoa da, ez baita izaten arriskurik ebakiak egiteko edo larruazala urratzeko (besapeetan, adibidez, kosta egiten da makinarekin edo labanatoarekin asmatzea). Hori bai, azala baino nabarmen alkalinoagoak direnez etiketak agintzen duen denbora pasatzen denean, berehala kendu behar dira.

Batez beste, 3,28 euro kostatzen da bi zangoetan ileak belauetik behera kentzea; argizaria erabiliz baino merkeago iriteten da, baina bandekin baino garestiago. Byly etxekoa izan da kremarik merkeena (1,86 euro); kalitate azterketan emaitza bikaina lortu du, eta horrexegatik gailendu da kalitate-prezioetan. Tioglikolato gehien Byly etxekoak eduki du (% 4,2), eta Veet etxekoarekin batera, baita estraktu lehor gehien ere (proportzioan, beraz, horiek eduki dute osagai gehien eta ur gutxien). Biskositate gutxien ere Byly etxekoak eman du (Taky etxekoa izan da biskosoena), eta pH apalena ere bai (11,5). Erabilera proban, ordea, 5,2 puntu lortu ditu 9tik, eta urrun geratu da beste hiruretatik: Veet (7,2 puntu), Taky (6,8 puntu) eta Daen (6,2 puntu). //

Banan 12 ARGIZARI-BANDA, ARGIZARI ETA ILEA KENTZEKO KREMA

ARGIZARI BANDAK

DAEN

Argizari-banden artetik, hau gailendu da kalitate-prezioetan.

Prezioa: 0,27 euro/bi banda. Hauek izan dira merkeenak.

Kalitatea, oro har: Ona.

Etxe honetako bandek soilik ekarri dituzte eskuzapitxo geldotzaileak, ileak mantsoago haz daitezke. Argizari zerrendarik zabalena ere hauek eduki dute. Zenbait zorrotan, depilazio osterako eskuzapitxoak falta izan dira.

Erabilera proba: 6 puntu 9tik.

Honen lurrina gustatu zaie gutxien erabiltzaileei. Beste bandak baino errazago berotu eta zabaldu dituzte.



BYLY

Prezioa: 0,41 euro/bi banda.

Kalitatea, oro har: Oso ona.

Honek eduki du argizari zerrendarik luzeena, gainazal handienekoa eta gramo gehienekoa; zabalera, aldiz, besteak baino estuagoa izan da.

Erabilera proba: 6 puntu 9tik.

Daen etxekoarekin batera, emaitza apalena lortu duena. Kontsumitzaileei ez zaie iruditu erabilerraza.



TAKY

Prezioa: 0,43 euro/bi banda.

Kalitatea, oro har: Ona.

Argizari zerrendarik motzena eduki du, eta gainazal gutxienekoa.

Erabilera proba: 6,1 puntu 9tik.

Honen lurrina gustatu zaie gehien erabiltzaileei.



VEET

Prezioa: 0,64 euro/bi banda. Hau izan da garestiena.

Kalitatea, oro har: Oso ona.

Bi eskuzapitxo ekarri ditu ileak kendu osterako. Argizari zerrenda luzeenetakoa duena izan da.

Erabilera proba: 6,4 puntu 9tik. Honek lortu du emaitzarik onena argizari-banden artean.

Eragin kortasunaren atalean, beste bandek baino emaitza apalagoa lortu du, eta eskuzapitxoak ere, ez dira izan besteak bezain gustukoak.



ARGIZARIAK

BYLY

Argizarien artean, hau gailendu da kalitate-prezioetan.

Prezioa: 28,81 euro/kilo. Litroa aintzat hartuta, hau izan da garestiena, baina saioka neurtuta, merkeenetakoa.

Kalitatea, oro har: Oso ona.

Azukreekin egina da. Zein lurrin duen eta nola aurkeztuta dagoen ikusita, sobera erakargarria izan liteke haurrentzat, jateko zer-bait dela pentsa baitezakete. Arraboltxoak dakar argizaria zabaltzeko.

Erabilera proba: 6,3 puntu 9tik.

Erraz zabaltzen eta erabiltzen da. Honen kolorea gustatu zaie gutxien erabiltzaileei.



DAEN

Prezioa: 24,66 euro/kilo.

Kalitatea, oro har: Ona.

Azukreekin egina da. Arraboltxoak dakar argizaria zabaltzeko. Honek eduki du biskositate gutxien. Veet etxekoarekin batera, estraktu lehor gutxien daukana izan da. Zenbait zorrotan, Daen Retard eskuzapitxoak falta izan dira, nahiz eta etiketak esan bazituztela.

Erabilera proba: 7,1 puntu 9tik. Honek lortu du emaitzarik onena argizarietan.

Hau gustatu zaie gehien erabiltzaileei. Larruazala honek utzi du ongien ileak kendu eta gero, eta besteekin baino luzarago iraun dute zangoek ilerik gabe.



VEET

Prezioa: 21,05 euro/kilo. Kiloka aintzat hartuta, hau izan da merkeena.

Kalitatea, oro har: Oso ona.

Azukreekin egina da. Argizaria zabaltzeko espaturaren gainean "¡NO!" ageri da idatzita (EZ!), ohartarazteko ez dela argizariak zabaldu behar beroegi badago. Daen etxekoarekin batera, honek eduki du estraktu lehor gutxien.

Erabilera proba: 6,5 puntu 9tik.

Honen lurrina gustatu zaie gutxien erabiltzaileei.



TAKY

Prezioa: 21,33 euro/kilo. Saioka aintzat hartuta, hau izan da garestiena.

Kalitatea, oro har: Ona.

Erretxinaren eratorriekin egina dagoen bakarra. Itxura eta lurrina haurrentzat erakargarri izan daitezke. Oihal bandak ekarri ez dituen argizari bakarra. Ilek kendu osterako eskuzapitxoak eduki dituen bakarra. Biskositate eta estraktu lehor gehien euki duena.

Erabilera proba: 6,4 puntu 9tik.

Kolorea gustatu zaie gehien erabiltzaileei.



ILEAK KENTZEKO KREMAK

BYLY

Kremen artean, hau gailendu da kalitate-prezioetan.

Prezioa: 28,17 euro/kilo. Saioka neurtuta, hau izan da merkeena.

Kalitatea, oro har: Bikaina

Honek eduki du pH apalena. Ez da izan bestek bezain biskosoa, eta honi antzeman diogu estraktu lehor gehien, Veet etxekoarekin batera. Besteek baino tioglikolato gehiago eduki du.

Erabilera proba: 5,2 puntu 9tik. Honek lortu du emaitzarik apalena.

Beste hiruren aldean, oso puntu gutxi eman dizkiote erabiltzaileek.



DAEN

Prezioa: 18,64 euro/kilo. Kiloka neurtuta, hau izan da merkeena.

Kalitatea, oro har: Ona.

Eduki garbi gehienekoa izan da. Estraktu lehorra, berriz, besteek baino gutxiago eduki du.

Erabilera proba: 6,2 puntu 9tik.

Erdi parean geratu da erabilera proban.



TAKY

Prezioa: 32,31 euro/kilo.

Kalitatea, oro har: Oso ona.

Honek soilik ekarri ditu ileak kendu osterako eskuzapitxoak. Hau izan da guztietan biskosoa, eta pH-a ere honek eduki du handiena. Veet etxekoarekin batera, hau izan da tioglikolato gutxienekoa.

Erabilera proba: 6,8 puntu 9tik.

Erabiltzaileei gehien gustatu zaienetakoa izan da, Veet-ekin batera.



VEET

Prezioa: 44,14 euro/kilo. Kiloka eta saioka neurtuta, hau izan da guztietan garestiena.

Kalitatea, oro har: Oso ona.

Byly etxekoarekin batera, honek eduki du estraktu lehor gehien. Tioglikolatoa, berriz, gutxien eduki duenetakoa da, Taky etxekoarekin batera.

Erabilera proba: 7,2 puntu 9tik.

Honek lortu du emaitzarik onena. Erabiltzaileei gustatu zaie, larruazala ongi uzten duelako ileak kendu eta gero, eta luzaro irauten duelako ere bai.



Laburbilduz

Ilea kentzeko lau banda, lau argizari eta lau krema aztertu ditugu, Taky, Veet, Byly eta Daen etxekoak. Horrez gain, hogeita hamar estetika- eta mediku-zentrotan galde-tu dugu zenbat balio duen ileak argizariz kentzeak, fotodepilazio bidez eta laser bidez.

Ileak kentzeko sistemarik merkeena argizari-bandak erabiltzea da; argizari hotzeko xaflak dira, eta larruazalean itsatsiz eta tira eginez kentzen dira ileak. Belaunetik behar-rako ileak kentzea 1,75 euro kostatzen da sistema horrekin. Daen etxeko argizari-bandek lortu dute emaitzarik onena kalitate-prezioetan.

Argizariak mikrouhin labeen berotzen dira, eta espatula edo arrabol batekin zabaltzen dira larruazalean. Behin argizaria hoztu denean, tira eginez kentzen da hori ere, bandak bezalaxe (etxe gehienek oihal bandak ekarri dituzte, argizari gainean itsatsi eta tira egiteko). Bi zangoetako ileak kentzea (belau-netik behar-rakoak) 3,60 euro kostatzen da sistema honekin, eta hauxe izan da hiruretan garestiena. Kalitate-prezioetan, Byly argizaria gailendu zaie besteei.

Ilea kentzeko kremek agerian geratzen den ile zatia soilik desagerrarazten dute, tioglikolato izeneko substantzia bati esker; argizariak eta bandek ez bezala, ordea, ilea ez dute errotik ateratzen. Kremetan ere, Byly etxekoak nagusitu da kalitate-prezioetan.

Taky eta Byly argizariak oso erakargarriak gerta daitezke haurrentzat (jakiak direla pentsa dezakete, halako itxura eta usaina baitute). Daen etxeko argizari zorrotan, Daen Retard izeneko eskuzapitxoak edukiko zuela esan du etiketak, baina batzuek falta izan dute.

Argizaria erabiliz etxean ileak kentzea 3 eta 8 aldiz merkeagoa da estetika-zentro batean egitea baino; fotodepilazioa egiteak balio duenarekin, 5 urtez joan liteke estetika-zentro batera ileak argizariz kentzera, eta 25 urtez aritu ahal izango ginateke etxean argizariz ileak kentzen.